*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Murgian, bi mila eta hogeita bateko apirilaren 15ean, arratsaldeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutierrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari lanak egin ditu.

**ALKATEA**
UNAI GUTIERREZ URKIZA JN. (EH Bildu)
**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZUIA BAI)
ALAITZ TRESSERRAS ANGULO AND. (EH Bildu)
NEREA IDIGORAS LASAGA AND. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (ZUIA BAI)
CONCHI LOPEZ LOPEZ AND. (ZUIA BAI)
ANDRES LAFUENTE OTXOA JN. (ZUIA BAI)
LUIS MARIA SAUTU APELLANIZ JN. (PP)
**BERTARATU EZ DEN ZINEGOTZIA**
ITZIAR MENDIA CELAA AND. (EH Bildu)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

**1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA**

En Murgia a quince de abril de dos mil veintiuno, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Ordinaria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de las personas miembros de la Corporación que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**CONCEJALES ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZUIA BAI)
DOÑA ALAITZ TRESSERRAS ANGULO (EH Bildu)
DOÑA NEREA IDIGORAS LASAGA (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (ZUIA BAI)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (ZUIA BAI)
DON ANDRÉS LAFUENTE OTXOA (ZUIA BAI)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)
**CONCEJALA QUE NO ASISTE:**
DOÑA ITZIAR MENDIA CELAA (EH Bildu)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Aurreko bilkurako akta aztertu ondoren, Udalbatzak aho batez erabaki du onestea.

Vista el acta de la sesión anterior, la Corporación por unanimidad acuerda aprobarla.

**2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.**

**2.- DECRETOS DE ALCALDÍA.**

Alkatetzak 2021.03.08ko 51. dekretutik 2021.04.09ko 86.era emandako ebazpenen berri eman da. Udalbatzak ebazpenen berri izan du, horitako batzuk Informazio Batzordean argitu ondoren.

Se da cuenta de las resoluciones dictadas por la Alcaldía desde el decreto nº 51 del 08.03.2021 al nº 86 del 09.04.2021, dándose la Corporación por enterada, una vez aclaradas algunos de ellos en la comisión informativa.

**3.- POSTA OFIZIALA.**

**3.- CORRESPONDENCIA OFICIAL.**

Udalbatzak jakintzat eman du Udaleko erregistro orokorrean sartu eta irten den dokumentazioa, kide batzuek eskatuta Informazio Batzordean zenbait komunikazio azaldu ondoren. Alkateak zehaztu du jasotako esker-idazkia Osasun sailburuari zegokiola.

La Corporación se da por enterada de la documentación que ha tenido entrada y salida en el registro general del Ayuntamiento, una vez que han sido explicadas determinadas s comunicaciones en la comisión informativa a petición de algunos de sus miembros, concretando el Alcalde que el escrito de agradecimiento recibido correspondía a la Consejera de Sanidad

**4.- DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA ONARTZEA.**

**4.- APROBACIÓN DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES.**

Alkateak 2021-2023 aldirako diru-laguntzen plan estrategikoa onartzea proposatu du, eta Elorza zinegotziari eman dio hitza, horren berri eman dezan.

Elorza zinegotzi andreak Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatu du: lehenik eta behin, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorrak 2003az geroztik eskatutakoa bete nahi da, aurreko planaren epea agortu delako, eta egokientzat jo delako plan berri honen indarraldia legealdi honen amaierarekin bat etortzea, 2023. urte osoa hartuta. Dokumentuan, lortu nahi diren helburuak eta aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntzekin lortu nahi diren ondorioak jasotzen dira, hamar ildo estrategikotan edo arlotan banatuta. Plana dokumentu bizia da, irekia, baina ez du eragozten aldatzea indarrean dagoen bitartean beharrezkotzat jo daitezkeen diru-laguntza berriak gehituz,

El Alcalde propone aprobar el Plan estratégico de subvenciones para el periodo 2021-2023 y concede la palabra a la Concejala Sra. Elorza para que informe del mismo.

La Concejala Sr. Elorza reiterando lo expuesto en la comisión informativa expone: que se trata de dar cumplimiento en primer lugar a lo exigido ya desde el año 2003 por la Ley General de Subvenciones, toda vez que se ha agotado el periodo del anterior plan, y se ha considerado lo más adecuado hacer coincidir la vigencia de este nuevo plan con el fin de la legislatura actual, abarcando todo el año 2023; el documento recoge los objetivos que se pretenden alcanzar y los efectos a conseguir con las diversas subvenciones previstas en el presupuesto,

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

aurreko ekitaldian gertatu den bezala Covid-19 delakoaren ondorioz edo beharrezkotzat jotzen ez diren beste batzuk ezabatuz. Aurreko planari dagokionez, lerro estrategiko batean bildu dira kulturari, ondareari eta herritarren parte-hartzeari dagozkien diru-laguntzak (3. ildoa).

que se dividen en diez líneas estratégicas o áreas. El Plan es un documento vivo, abierto, que no impide su modificación con la incorporación de nuevas subvenciones que pudieran considerarse necesarias a lo largo de su vigencia, como así ha ocurrido el pasado ejercicio con motivo del Covid-19 o la eliminación de otras que se considere no son necesarias. Respecto al anterior plan, en este se han agrupado en una línea estratégica las subvenciones correspondientes a cultura, patrimonio y participación ciudadana (línea 3).

Lopez zinegotziak galdetu du zer diru-laguntza eman behar diren ziklo-kroseko campuserako (Javier Ruiz) eta txirrindularien klubari 23 urtekoen azpiko talderako, soilik mutilentzat bada. Alkateak erantzun dio Larrinagaren campusa *ez dela neskentzat eta mutilentzat*, eta txirrindularien taldea *mutilentzat bakarrik dela gaur egun.*

La Concejala Sra. López pregunta sobre las subvenciones destinadas al campus de ciclocross (Javier Ruiz) y al club ciclista para el equipo Sub-23, si es solo para chicos, contestándole el Alcalde que el campus de Larrinaga no, *es para chicas y chicos* y el equipo ciclista *solo para chicos a día de hoy*.

Udalatzak aho batez honako hau ERABAKI DU:

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

LEHENENGOA.- Zuiako Udalaren 2021-2023rako Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzea.

PRIMERO.- Aprobar el Plan Estratégico de subvenciones 2021-2023 del Ayuntamiento de Zuia.

BIGARRENA: Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

SEGUNDO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**5.-** HAINBAT ARLOTARAKO DIRU-LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK (kirol, kultura eta gizarte arloetarako, euskara sustatzeko, EITak egiteko, haurrak etxean hartzeko programak sustatzeko, IGEentzako laguntzak, ikasi edo prestatzen laguntzeko eta horretarako garraiorako, pertsonak zaintzeko kontratazio laguntzak, haurreskola eta Kontzejuetarako laguntzak).

5.- BASES REGULADORA DE SUBVENCIONES EN DIVERSOS AMBITOS (deportivo, cultural, promoción euskera y/o sociales, estudio del euskera, realización de ITEs, promoción de programas de acogimiento infantil, ayudas AMPAS, ayudas transporte y apoyo al estudio y la formación, ayuda a contratación para el cuidado de personas, ayudas a familias haurreskolak y a Concejos).

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, hainbat arlotarako diru-laguntzen oinarri arautzaileak onartzea eta 2021eko deialdiak egitea proposatu du. Hona arlo horiek zeintzuk diren: kirol, kultura eta gizarte arloak, euskararen sustapena, EITak, haurrak etxean hartzeko programen sustapena, ikasi edo prestatzen laguntzeko eta horretarako garraioa, pertsonak zaintzeko kontratazioa laguntzeko, haurreskolak eta Kontzejuak.

Elorza zinegotziari eman dio hitza, eta hark, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, 2020ko ekitaldiko oinarrietan egindako aldaketak zehaztu ditu:

- Deialdietarako eskabide-eredu berriak egin dira, deialdietara egokituak, interesdunek errazago aurkez ditzaten eta administrazio kudeaketa errazagoa izan dadin. Era berean, horietako batzuetarako (kirolekoak, kulturalak eta IGEenak) eranskinak egin dira, dagokion balorazioa egiteko behar den dokumentazioari buruzkoak.

- Bazterkeria saihesteko erabilitako hizkera zuzendu da (arduraduna, Alkatetza, …).
- Logikoa denez, aldatu egin da deialdiei dagokien urtea (2021), dagokion ikasturteari egiten zaion erreferentzia (2020-2021) eta eskatzen den PFEZaren aitorpena (amaitutako ekitaldi ekonomikoari dagokiona, hau da, 2020koa).
- Hiru hilabetera luzatuko da mendetasuna duten pertsonak zaintzeko langileak kontratatzeko diru-laguntzen eskabideak aurkezteko epea, bai eta laguntza horiek ebaztekoa ere.
- Oinarri guztietan zehazten da 2021eko aurrekontuan esleitutako zenbatekoa.

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la comisión informativa propone aprobar las bases reguladoras de las subvenciones en los ámbitos deportivo, cultural, promoción de euskera y sociales, estudio de euskera, realización de las ITEs, programa de acogimiento infantil, transporte y apoyo al estudio y formación, ayuda a la contratación para el cuidado de personas, a familias haurreskolak y a Concejos, y realizar las correspondientes convocatorias 2021.

Concede la palabra a la Concejala Sra. Elorza, quien reiterando lo expuesto en la comisión informativa, detalla las modificaciones introducidas respecto a las bases del ejercicio 2020:

- Se han realizado nuevos modelos de solicitudes para las diversas convocatorias, adaptados a las mismas, con el fin de facilitar tanto su presentación por parte de las personas interesadas como la gestión administrativa para su resolución. Así mismo se han elaborado Anexos para algunas de ellas (deportivas, culturales y AMPAs) referidos a la documentación requerida para realizar la valoración correspondiente.
- Se ha corregido el lenguaje utilizado para evitar la exclusión (persona responsable, Alcaldia,…)
- Se modifica lógicamente el año al que corresponden las convocatorias (2021), la referencia al curso correspondiente que es 2020-2021, la declaración del IRPF que se exige (la del ejercicio económico vencido que es el 2020).
- Se amplía a 3 meses tanto el plazo de presentación de solicitudes de subvención para la contratación de personal para cuidado de personas dependientes como para la resolución de las mismas.
- En todas las bases se detalla la correspondiente cuantía consignada en el presupuesto 2021.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

- Berriz ere haurreskolara joaten diren seme-alaben familientzako laguntzen deialdia egitea proposatzen da, 2019an onartutako oinarrietan jasotako baldintzetan, lehen aipatutako egungo erreferentziekin (2021. urtea, 2020/21 ikasturtea, 2020ko PFEZaren aitorpena).

- Se propone nuevamente convocar las ayudas para familias cuyas hijas e hijos asisten a la Haurreskolak en los términos recogidos en las bases aprobadas en el año 2019, con las correspondientes referencias actuales a que se ha hecho mención anteriormente (año 2021, curso 2020/21, declaración IRPF 2020).

**Kontzejuentzako diru-laguntzen oinarriei** dagokienez, alkateak hartu du hitza eta honakoa proposatu du:

- Elurra kentzeko makinaren ordua 70 eurora igotzea, BEZik gabe.

Respecto a las **bases de subvenciones a los Concejos,** toma la palabra el Alcalde y propone

- Incrementar la hora de máquina para retirada de nieve a 70€ IVA excluido

Zuia Baik ondorengo proposamena aurkeztu du:

1.- Obra eta Zerbitzuen Foru Planeko obrei buruzko 3.1.a) atala aldatzea, diru-laguntza emateko foru erakundeak diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 98raino mantentzeko, betiere aurrekontu osoaren ehuneko 18 bermatzen bada eta kontzejuak % 2ko ekarpena egiten badu.

2.- Parrokiak mantentzeko obretarako diru-laguntzak mantentzea, baldin eta kontzejuak hala erabakitzen badu.

Zuia Bai ha presentado la siguiente propuesta:

1.- Modificar el apartado 3.1.a) referido a las obras del Plan Foral de Obras y Servicios en el sentido de mantener la subvención de hasta el 98 por ciento del presupuesto subvencionable considerado por la entidad foral para conceder la misma, siempre que se garantice el 18 por ciento del presupuesto total, y que el Concejo aporte un 2%.

2.- Mantener las subvenciones para las obras de mantenimiento de las parroquias siempre y cuando el Concejo lo acuerde.

Alkateak esan du ados daudela lehenengo puntuarekin, baina ez kontzejuaren jabetzakoak ez diren ondasunetako obrak diruz laguntzearekin, elizak edo bestelako higiezinak izan. Proposamenaren bi puntuak bereizita edo blokean bozkatzeko aukera planteatu du, eta bertaratutakoek bozketa bereiztea erabaki dute. Emaitza hau izan da:

El Alcalde dice que están de acuerdo con el primer punto, pero no con subvencionar obras en bienes que no son propiedad del Concejo, sean iglesias u otros inmuebles. Plantea la posibilidad de votar de manera diferenciada los dos puntos de la propuesta o en bloque, acordando los presentes diferenciar la votación, con el siguiente resultado:

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

3.1.a) puntua aldatzea, denak alde aho batez.

Elizetan obrak egiteko diru-laguntzak mantentzea, Kontzejuaren erabakiarekin: 4 zinegotziren aldeko botoak (3 Zuia Bai eta 1 PPkoa), EH-BILDUren 5en aurkakoak, eta Zuia Bai zinegotziaren abstentzio bat, Lafuente jauna.

Udalbatzak, aho batez, (**kontzejuentzako diru-laguntzen oinarrien puntua izan ezik, elizetako ondasunetan obrak egiteko diru-laguntzak kentzeari buruzkoa, zeina gehiengoz bozkatu baita, azaldu den bezala**) honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2021eko ekitaldirako hainbat arlotarako diru-laguntzen deialdiak onartzea (kirol, kultura eta gizarte arloetarako, euskara sustatzeko, EITak egiteko, Zuiako udalerrian haurrak etxean hartzeko programa, Zuiako IGEentzako laguntzak, ikasi edo prestatzen laguntzeko eta horretarako garraiorako, mendekotasuna duten pertsonak zaintzeko kontratazio laguntzak, haurreskoletan matrikulatutako seme-alaba dituzten familientzako laguntzak eta Kontzejuetarako laguntzak), 2020ko diru-laguntzak arautzen dituzten oinarrien arabera (Haurreskolena izan ezik, 2019koa baita), eta ondoren zehazten diren aldaketekin:

- Diru-laguntza horiek babesten dituzten aurrekontu-kredituak 2021eko aurrekontuari dagozkio.
- 2019/2020 denboraldiari/ikasturteari buruzko erreferentzia 2020/2021 ikasturteari egindakotzat hartuko da.
- 2020. urteari egindako erreferentzia 2021. urteari dagokiola ulertuko da.

Modificación del punto 3.1.a) por unanimidad todos a favor.

Mantenimiento de subvenciones para obras en las iglesias con el acuerdo del Concejo: votos a favor 4 Concejales (3 de Zuia Bai y 1 de PP), en contra los 5 de EH-BILDU y 1 abstención Concejal de Zuia Bai Sr. Lafuente.

La Corporación por unanimidad (**salvo el punto de las bases de subvenciones a Concejos, referente a la eliminación de subvenciones para obras en bienes de las iglesias que lo ha sido por mayoría tal y como se ha expuesto**) ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar las convocatorias de subvenciones en los ámbitos deportivo, cultural, promoción de euskera y/o sociales, para el estudio de euskera, realización de las ITEs, programa de acogimiento infantil en el municipio de Zuia, asociaciones de madres y padres de alumnos y alumnas de Zuia, transporte y apoyo al estudio y formación, para la contratación de personal para el cuidado de personas dependiente, ayudas a familias con niñas y niños matriculados en el consorcio haurreskolak y a Concejos para el presente ejercicio 2021, conforme a las Bases reguladoras de las citadas subvenciones de 2020, excepto la de Haurreskolak que es la del 2019, con las modificaciones que seguidamente se detallan:

- Los créditos presupuestarios que amparan las mismas corresponden al presupuesto 2021
- La referencia a temporada/curso 2019/2020 se considerará realizada a la del 2020/2021.
- La referencia al año 2020 se entenderá realizada al 2021.

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

- Eskatzen denean aurkeztu beharko den errenta 2020koa da.

- Diru-laguntza horietako batzuk justifikatzeko azken egunak urriaren edo azaroaren amaierarako ezarritakoan, hil horien azken egun baliodun dela ulertzen da.

- Deialdiko diru-laguntza guztietarako eskabide-eredu berriak onartu dira.

- Eranskinen ereduak onartu dira kirol eta kultura arloetan eta IGEetan.

- Haurren harrerako programara bideratutako zenbatekoa 3.500 eurokoa da.

- Kontzejuentzako diru-laguntzen oinarriei dagokienez, horien izenburua aldatu da, Kontzejuaren jabetzakoak ez diren ondasunak mantentzeari buruzko zatia kendu delako (*Kontzejuei beren eskumenen eta azpiegituren esparruan ematen zaizkien diru-laguntzen oinarri arautzaileak*), *elurra kentzeko zenbatekoa 70 €/ makinako finkatu da*, eta 4. aztergaia (*diruz lagun daitezkeen beste programa batzuk, parrokia-elizako obrei buruzkoak*) kendu egin da, eta, *ondorioz, gainerako klausulak berriro zenbakitu dira*. 3.1.a puntuan, berriaz, honakoa gehitu da:

Obra eta Zerbitzuen Foru Planaren eta Obra Txikien Programaren barruan finantzatutako obra eta inbertsioek Arabako Foru Aldundiak jasotakoaz bestelako diru-laguntza osagarria jasoko dute, eta diru-laguntza hori emateko foru erakundeak aintzat hartutako diruz laguntzeko moduko aurrekontuaren ehuneko 98 estaliko du, ***baldin eta zenbateko hori Kontzejuak Aldundiari diru-laguntzaren eskaerarekin batera aurkeztutako aurrekontuari % 18 aplikatzearen ondoriozkoa edo handiagoa bada, bestela azken hori aplikatuko litzatekeelako. Nolanahi ere, Kontzejuak obraren edo inbertsioaren % 2 jarri beharko du***. ……

**BIGARRENA.-** Erabaki honetan arautatako diru-laguntzak 2021eko gastuen aurrekontuko ondorengo partiden kargura

- La renta que deberá presentarse cuando se exija es la del 2020.

- Las fechas límite para justificar algunas de las subvenciones señaladas a final de octubre o noviembre se entienden último día hábil de dichos meses.

- Se aprueban nuevos modelos de solicitudes para todas las subvenciones que se convocan.

- Se aprueban modelos de Anexos en las de ámbito deportivo, cultural y, AMPAs.

- La cuantía destinada al programa de acogimiento infantil es de 3.500€

- Respecto a las bases de subvenciones a Concejos se modifica el título de las mismas al eliminarse la parte que se refiere al mantenimiento de bienes que no son propiedad del Concejo (*Bases reguladoras de subvenciones a los Concejos en el ámbito de sus competencias e infraestructuras*), *se fija el importe de la retirada de nieve en 70 €/hora máquina y* se elimina el punto 4.- *Otros programas subvencionables* (referente a obras en la iglesia parroquial), *con la consiguiente renumeración del resto de cláusulas* y se añade en el punto 3.1.a) lo siguiente:

Las obras e inversiones financiadas dentro del Plan Foral de Obras y Servicios y Programa de Obras menores obtendrán una subvención complementaria a la recibida por la Diputación Foral de Álava que cubrirá hasta el 98 por ciento del presupuesto subvencionable considerado por la entidad foral para conceder la misma, ***siempre y cuando dicho importe sea igual o superior a lo que resultaría de aplicar un 18% al presupuesto presentado por el Concejo ante Diputación con la solicitud de subvención, porque en caso contrario se aplicaría esto último; En todo caso el Concejo deberá aportar el 2% de la obra o inversión***. ……

**SEGUNDO.-** Las subvenciones reguladas en este acuerdo se abonarán con cargo a las partidas 341.481.000,

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

ordainduko dira: 341.481.000, 334.481.000, 335.480.000, 1522.481.000, 231.780.000 -3.500€-, 326.481.000, 326.481.060, 326.481.070, 326.481.020, 231.480.090, 326.481.050, 134.434.000, 165.434.000, 338.434.000, 410.227.011, 943.434.000 eta 943.734.000.

**HIRUGARRENA.-** Deialdi horiek Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean eta diru-laguntzen datu-base nazionalean argitaratzea.

**LAUGARRENA**.- Unai Gutierrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiriak formaliza ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

**6.- KREDITUEN JUDIZIOZ KANPOKO ONESPENA.**

Udalbatzak aho batez erabaki du gaia mahai gainean uztea, beharrezko partidak gaitu eta osatzeko behar den espediente gehigarri bat elkarrekin sartzeko.

**7.- 2021EKO LAN EGUTEGIAREN BERRIKUSPENA.**

Alkateak, Informazio Batzordean azaldutakoa errepikatuz, Gobernuaren Arabako Ordezkariordetzak Udaleko langileentzat 2021erako onartutako lan egutegiari buruz egindako errekerimenduaren berri eman du (udal eta kale bulegoetako langileak barne), 2018rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legearen 144. xedapen gehigarrian aurreikusitako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko, sektore publikoko lanaldi orokorra aldatzeko aukera (1.642 ordu urtean) aurrekontu egonkortasuneko, zorreko eta gastu arauko helburuak betetzearen mende eta enpleguaren behin-behinekotasuna % 8

334.481.000, 335.480.000, 1522.481.000, 231.780.000 -3.500€-, 326.481.000, 326.481.060, 326.481.070, 326.481.020, 231.480.090, 326.481.050, 134.434.000, 165.434.000, 338.434.000, 410.227.011, 943.434.000 y 943.734.000 del presupuesto de gastos 2021.

**TERCERO.-** Publicar dichas convocatorias en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava y en la Base de datos nacional de subvenciones.

**CUARTO.-** Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya, para que en nombre y representación del Ayuntamiento dicte cuantos actos y formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**6.- RECONOCIMIENTO EXTRAJUDICIAL DE CRÉDITOS.**

La Corporación por unanimidad acuerda dejar el tema sobre la mesa, con el fin de incluir conjuntamente un expediente adicional necesario para habilitar y suplementar las partidas necesarias.

**7.- REVISION DEL CALENDARIO LABORAL 2021.**

El Alcalde, reiterando lo expuesto en la comisión informativa da cuenta del requerimiento cursado desde la Subdelegación del gobierno en Alava respecto al calendario laboral aprobado para el presente año 2021 para el personal del Ayuntamiento (incluye personal de oficinas municipales y de calle), para que se acredite el cumplimiento de los requisitos previstos en la Ley de Presupuestos Generales del Estado para 2018 en su Disposición adicional 144, que supedita la posible modificación de la jornada general laboral del sector público (1.642 horas anuales) al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria,

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

baino handiagoa ez izatearen mende jartzen baitu.

Kontuan hartuta 2019ko ekitaldiaren likidazioan ez dela betetzen gastu arauaren helburua, Alkatetzak proposatu du onartutako lan egutegia aldatzea, urteko 1.642 orduetara egokitzeko, aintzat izanik Funtzio Publikoko Estatu Idazkaritzaren 2019ko otsailaren 28ko Ebazpena, langileen lanaldiari eta lan ordutegiei buruzko jarraibideei buruzkoa.

Udalatzak aho batez honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Udaleko langileentzat (bulegoetakoak eta kaleko langileenak barne) 2021erako onartutako lan egutegia aldatzea, 1.592 ordutik 1.642ra.

BIGARRENA.- Unai GutiErrez Urkiza alkate-udalburuari ahalmena ematea eragindako langileekin ordu banaketa egin dezan, akordio berri hau betetzeko, Administrazio Orokorraren zerbitzura dauden langileen lanaldiari eta lan ordutegiei buruzko jarraibideak ematen dituen Funtzio Publikoaren Estatu Idazkaritzaren 2019ko otsailaren 29ko Ebazpena erreferentziatzat hartuta.

HIRUGARRENA.- Gobernuaren Arabako Ordezkaritzari erabaki honen berri ematea, dagozkion ondorioak izan ditzan.

deuda, regla de gasto y a que la temporalidad del empleo no supere el 8%,

Considerando que en la liquidación del ejercicio 2019 no se cumple el objetivo de la regla de gasto, la Alcaldía propone modificar el calendario laboral aprobado, con el fin de ajustar el mismo a las 1.642 horas anuales, teniendo en cuenta la Resolución de 28 de febrero de 2019 de la Secretaria de Estado de función pública de instrucciones sobre jornada y horarios de trabajo de personal.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

PRIMERO.- Modificar el calendario laboral aprobado para el año 2021 para el personal del Ayuntamiento que incluye el de oficinas y el personal de calle, de las 1.592 horas a 1.642.

SEGUNDO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza para que realice la distribución horaria con el personal afectado con el fin de dar cumplimiento a este nuevo acuerdo, tomando como referencia la Resolución de 29 de febrero de 2019 de la Secretaria de Estado de la Función Pública por la que se dictan instrucciones sobre jornada y horarios de trabajo del personal al servicio de la administración general.

TERCERO.- Dar cuenta de este acuerdo a la Subdelegación del Gobierno en Alava a los efectos oportunos.

**8.- TXOSTENAK.**

Alkateak esan du Informazio batzordean eman zela txostenen berri.

**8.- INFORMES.**

El alcalde comenta que ya se dio cuenta de los informes en la comisión informativa.

**9.- GALDERAK ETA ESKAERAK.**

Sautu zinegotzi jaunak ondorengoen inguruan galdetu du:

**9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.**

El Concejal Sr. Sautu pregunta lo siguiente:

*Plaza del Ayuntamiento, 1 • C.P. 01130 • Murgia • Araba • C.I.F. P0107200-H • ☎ 945 430005 • Fax: 945 430366*
*✉ zuiakoudala@ayto.araba.eus • Web: www.zuia.eus*

- Hornidura baltsaren egoera: alkateak jakinarazi dio teknikariarekin hitz egiten saiatu dela, baina ez duela emaitzarik lortu.

- Udaleko plazako bankuak margotzea. Kolorearen erabakia nork hartu duen galdetu du: Elorza zinegotziak esan du erabaki hori iazko urrian hartu zela, baina ez zela gauzatu erabiltzen ari zirelako; berdintasun batzordearen proiektua zela. Sautu zinegotzi jaunak esan du ez zaiola egokia iruditzen, ez delako erabaki adostua izan. Elorza andreak erantzun du bere iritzia errespetatuz beste bat dutela: uste du kolorea ondo geratzen dela eta, gainera, mezu bat transmititzen duela.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:50ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Idazkaria,

- Situación de la balsa de abastecimiento: el Alcalde le informa que ha intentado hablar con el técnico pero sin resultado.

- Pintura de los bancos de la plaza del Ayuntamiento, pregunta quien ha tomado la decisión del colorido: la Concejala Sra. Elorza dice que es una decisión que se tomó en octubre del pasado año pero no se llevó a cabo porque se estaban utilizando; era un proyecto de la comisión de igualdad; el Concejal Sr. Sautu dice que no le parece adecuado porque no ha sido una decisión consensuada, contestando la Sra. Elorza que respetando su opinión, ellos tienen otra: cree que el colorido queda bien y además transmite un mensaje.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizada la sesión, siendo las 19:50 horas de todo lo que como Secretaria certifico.

La Secretaria,